

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****BIOEF**

1. Minbiziari buruzko ikerketa-proiektuetarako emango dituen laguntzak..... 2
2. Medtech ekimena garatzeko, baliozkotzeko eta erakusteko proiektuetarako laguntzak..... 4
3. Call for transnational proposals 2023 "Healthcare of the future" nazioarteko lehia-deialdian hautatutako euskal partaidetza duten I+G proiektuetarako laguntzak (2024) 6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Minbiziari buruzko ikerketa-proiektuetarako emango dituen laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko irailaren 17koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez BIOEF, Berrikuntza, Ikerketa, Osasuna Eusko Fundazioaren minbiziaren gaineko ikerketa-proiektuetarako laguntzak deitzen baitira.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01->

[bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2024005122&BOPV_HIDE_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2024005122&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

Ebazpena: [2502089e.pdf](#)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak minbiziaren arloko ikerketarako eta osasunaren garapenerako dirulaguntzen deialdia eta emakida arautzen ditu, objektibotasunaren, norgehiagokaren eta publizitatearen printzipioen arabera. Haren helburua da ikerketa biomedikoa eta osasunaren garapena sustatzea minbiziaren arloan.

Deialdiak minbiziari buruzko ikerketa biomedikoko proiektuak finantzatzen ditu. Proiektu horietan, ikertzaile taldea aintzat hartuta, ikertzaile berriak eta ohiko ikerketa-taldeak sustatzen dira. 2 edo 3 urteko iraupena dute.

Laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez ematen dira, eta lehentasuna ezartzen da aurkeztutako eskaeren artean, ebaluazioa eta hautaketa egin ondoren. Ebaluazioak eta hautaketak elkarren segidako bi fase ditu: proiektuen ebaluazio zientifiko-teknikoa, kanpoko ebaluatzaile independenteek eginga, eta Balorazio Batzordearen ebaluazioa, aginduan zehaztutako irizpide eta balioen arabera (puntuazioa).

Deialdia BIOEFen helburuaren barruan kokatzen da; alegia, Osasun Sisteman ikerketa sustatzekoan, biztanleen babesean esku hartzeko gaitasunak garatzeko eta etengabe hobetzeko tresna gisa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

38 laguntza-eskabide aurkeztu ziren, eta haietatik 9 finantzatu ziren, ebaluazio-prozesua gainditu ondoren. Deialdiaren zenbatekoa 1.231.018,05 €-koa izan zen, eta 9 proiektu onuradunetara bideratu zen. 2-3 urteko iraupena duten proiektuak finantzatzen ditu laguntzen deialdiak.

Ikerketarako laguntzen deialdiak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen ere laguntzen du.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz lagundu beharreko proiektuen kopurua (minbizi)	10	9



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Medtech ekimena garatzeko, baliozkotzeko eta erakusteko proiektuetarako laguntzak

2.- Araua

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2024ko irailaren 24koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez BIOEF Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioaren Medtech ekimena garatu, baliozkotu eta erakusteko proiektuetarako laguntzetarako deialdia egiten baita.

AGINDUA, 2024ko irailaren 24koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez BIOEF Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioaren Medtech ekimena garatu, baliozkotu eta erakusteko proiektuetarako laguntzetarako deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01->

[bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2024004933&BOPV_HIDE_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2024004933&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

<https://www.euskadi.eus/web01->

[bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2024004730&BOPV_HIDE_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2024004730&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

Ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01->

[bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025000370&BOPV_HIDE_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025000370&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Medtech ekimena garatzeko, baliozkotzeko eta erakusteko proiektuen deialdia eta laguntzak arautzen ditu Aginduak, publikotasun, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ez, efikazia eta efizientziaren printzipioen arabera. Helburua da enpresen produktuak/teknologiak/zerbitzuak garatzeko prozesua babestea eta azkartzea, batez ere Euskadiko osasun-sistemako ikerketa-institutuetan baliozkotzea eta/edo testatzea erraztuz.

Deialdi honetako jardueren azken helburua da enpresek osasun-ikerketako zentroen kategoriari dagozkion Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko agenteekin lankidetzan garatutako produktuak/teknologiak/zerbitzuak garatzen, baliozkotzen eta/edo frogatzen laguntzea. Enpresen eta euskal osasun-sistemaren arteko lankidetzaren proiektuen barruan garatutako osasun-teknologiak garatzeko, baliozkotzeko eta erakusteko jarduerak finantzatzen ditu, Medtech ekimenaren esparruan, Osasun Sistema Publikoak euskal enpresen berrikuntzari laguntzeko plataforma eta zerbitzu gisa, eta osasun-teknologiak baliozkotzeko eta erakusteko prozesuetan laguntzen du, I+G+Bri laguntzeko eta, zehazki, Euskadi 2030 ZTBPn jasotako enpresa-berrikuntzako ekosistemari laguntzeko programa gisa.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

16 laguntza-eskabide aurkeztu ziren, eta haietatik 16 finantzatu ziren, ebaluazio-prozesua gainditu ondoren. Deialdiaren zenbatekoa 750.000 €-koa izan zen. Abenduaren 18ko emakida-ebazpena 2025eko urtarrilaren 23an argitaratu zen EHAAn.

Ikerketa-proiektu horien finantzaketak osasun-teknologiaren garapena bultzatu nahi du, osasun-sistemaren, parte den sistema zientifikoaren eta teknologikoaren eta enpresa-sarearen arteko lankidetzaren bidez, osasun-sisteman pertsonen ematen zaien arreta hobetzeaz gain, euskal enpresak lehiakorragoak izan daitezen, gizarteari osasun-erronken aurrerapen eta konponbide berriak emanez, gure ingurunean frogatu eta baliozkotu ondoren. Deialdia BIOEFen helburuaren barruan kokatzen da; alegia, Osasun Sisteman ikerketa sustatzekoan, biztanleen osasunaren babesean esku hartzeko gaitasunak garatzeko eta etengabe hobetzeko tresna gisa.

1 urteko iraupena duten proiektuak finantzatzen ditu laguntzen deialdiak. I+G+b proiektuak finantzatuko ditu TRLen (Technology Readiness Level) 6 eta 9 artean dauden jarduerekin (ingurune klinikoko kontzeptuaren lehen probetatik hasi eta merkaturatze osteko jarraipen-azterketetarako), azterketa klinikoak izendapenarekin. Jarraipena egiteko, azken memoria zientifiko eta ekonomikoa aurkeztu da. Memoria horretan, lortutako helburu zehatzak banakatzen dira, eta egindako gastuak zehatz-mehatz justifikatzen dira.

Ikerketarako laguntzen deialdiak, halaber, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen du, eta alderdi zehatz hori sartzen du deialdiaren oinarrietan:

- Proiektuen ebaluazioan, genero-ikuspegia hartzen da kontuan (oinarrien aginduen 11.4 artikulua):
- “... 5) *Gizarte-trantsizioan eta genero-ikuspegiaren integrazioan laguntzea. Alde batetik, proiektuak gizarte kohesionatu eta parte-hartzailea lortzeko duen eragina baloratuko da, eta, bestetik, emakumeen eta gizonen ezaugarri biologikoak (sexua) eta genero-gaiei buruzko ezaugarri sozialak eta kulturalak kontuan hartzea. ...*”

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundu beharreko proiektuen kopurua	35	16



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Call for transnational proposals 2023 "Healthcare of the future" nazioarteko lehia-deialdian hautatutako euskal partaidetza duten I+G proiektuetarako laguntzak (2024)

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko irailaren 17koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Call for transnational proposals 2023 – «Healthcare of the future» nazioarteko lehia-deialdian hautatutako EAEren partaidetza duten I+G proiektuetarako laguntzen deialdia, BIOEF – Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioarena. Nazioarteko lehia-deialdi hori Horizonte Europa Esparru Programaren barruan Europar Batasunak sustatutako «European Partnership on Transforming Health and Care System (THCS)» osasun-sistemak eraldatzeko Europako lankidetzaren esparrukoa da (101095654 zenbakiko dirulaguntza-akordioa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/10/2404586a.pdf>

Ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/12/2405645a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak hurrengo lehia-deialdian hautatutako proiektuetan euskal partaidetza finantzatzeko laguntzak ematea arautzen du. Deialdi horretan, Osasun Sailak, BIOEFen laguntzarekin, erakunde finantzatzaile gisa parte hartzen du: 2023ko proiektuetarako laguntzen nazioz gaindiko deialdi bateratua – «Healthcare of the future».

Deialdiak 2023ko deialdiko («Healthcare of the Future») kanpoko adituen panelak hautatutako proiektuak finantzatzen ditu, 2023ko maiatzaren 23ko deialdian (THCS lankidetzaren webgunean argitaratua: <https://www.thcspartnership.eu/funding/announcement-of-the-joint-transnational-call-for-proposals-healthcare-of-the-future-.kl>).

Deialdia BIOEFen helburuaren barruan kokatzen da; alegia, Osasun Sisteman ikerketa sustatzekoan, biztanleen babesean esku hartzeko gaitasunak garatzeko eta etengabe hobetzeko tresna gisa. Halaber, 2022-2025 aldirako Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategian, misio hau definitzen da: «Euskadin osasunari buruzko ezagutza modu aktiboan sortzen laguntzea, nazioartean garrantzitsua baita, pertsona erdigunean jarritz, gizabanako eta gizarteko kide gisa. Esku hartzen duten eragile guztiei eragitea, Euskadiko Osasun Ikerketa eta Berrikuntza sistemen garapen koordinatua lortzeko». Ardatz estrategikoen artean, I+G nazioartekotzea dago. Horren jardun-eremuan, posizionamendua hobetzeko moduak, nazioarteko lankidetzak eta nazioarteko funtsak erakartzea sartzen da, nazioartean ezagutza aitortua sortuz, Europako proiektuen buru izatea ahalbidetzeko. Horretarako, Horizonte Europako

programazio bateratuko deialdietan euskal partaidetza finantzatzeko laguntzak emango dira, programa horietan parte hartu ahal izateko kofinantzaketa nazionala behar badute.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2 laguntza-eskabide aurkeztu ziren, eta finantzatu egin ziren. Deialdiaren zenbatekoa 300.000 €-koa izan zen.

Ikerketa-proiektu horien finantzaketaren helburua da «European partnership on Transforming Health and Care Systems – THCS —» osasun-sistemak eraldatzeko Europako lankidetzak abiarazitako lehia-deialdietan arrakastaz parte hartu duten euskal erakundeak finantzatzea. Deialdi horretan, Osasun Sailak, BIOEFen laguntzarekin, agentzia finantzatzaile gisa parte hartzen du deialdi horiek batera finantzatzuz.

THCS europar lankidetzak abiarazitako lehia-deialdietan arrakastaz parte hartu duten euskal erakundeak finantzatzen ditu deialdiak, berak egiten baitu ebaluazioa. Ikerketarako laguntzen deialdiak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen laguntzen du, neurri hauen bidez (deialdiaren oinarrietan sartuta daude):

- Hautagarritasun-irizpideetan genero-analisia sartzea:
 - “Ikerketa eta berrikuntzako edukietan Gizarte erantzukizunari, generoarekin erlazionatutako gaiei eta alderdiei behar bezalako arreta eskaini zaien neurrian”
 - “Genero-oreka”
- Proiektua finantzatzen bada, lehorraren, generoaren edo ordezkartza txikia duten populazioen analisisan honako hauek sartu behar dira: “Eskatzailerei biziki gomendatzen zaie sexuaren eta generoaren inguruko kontsiderazioak integratzea, bai eta ordezkartza txikia duten populazioak (adibidez, gutxiago etikoak, desgaitasunen bat duten pertsonak) edo ordezkartza txikia duten pazienteen azpimultzoak (adibidez, haurrak edo adinekoak) ere. Horrek, ikerketaren eta berrikuntza taldeen sexuaren arabarako banaketa ez ezik, ikerketan eta berrikuntzan sexuaren eta/edo generoaren analisia per se sartzea ere barne hartzen du. Hori bereziki aplikatzen da pazienteak proposamenean hartuta daudenean. Sexu eta genero proiektutzat hartzen da pertsonen edo pertsona taldeen dagokienean edo haien ondorioek gizabanakoei edo taldeei eragiten dietenean”.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundu beharreko proiektuen kopurua	3	2